

Ordizian, 2017ko uztailaren 20a UDALBATZARRAK Ohiko bilkura egin du udaletxe honetako bilkura aretoan. Hona hemen bertaratuak:

BERTARATUTAKOAK:

LEHENDAKARIA:

José Miguel Santamaría Ezeiza jn.

BERTAN DAUDEN ZINEGOTZIAK:

Joseba Aranburu Gauzarin	EAJ/PNV
Bittor Bolinaga Alzelai	EAJ/PNV
Jose Ignacio Iturrioz Gotor	EAJ/PNV
Arantxa Fernandez Alvaredo	EAJ/PNV
Igor Eguren Izagirre	Ordiziako E.H. Bildu
Belen Maiza Urrestarazu	Ordiziako E.H. Bildu
Izaro Intsausti Zinkunegi andrea.	Ordiziako E.H. Bildu
Jon Ander Caballero Zubelzu	Ordiziako E.H. Bildu
Miren Alazne Sukia Galparsoro	Ordizia Orain
M. Jesus Soto De Los Santos	Ordizia Orain
Iñaki Dubreuil Churruca jauna	Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak

IZAN EZ DIREN ZINEGOTZIAK:

Adur Ezenarro Agirre

IDAZKARIA:

Ana Urkizu Kerejeta and.

KONTUHARTZAILEA:

Mikel Zubizarreta Elicegui jn.

BESTE BERTARATZE ETA IRTEERAK

EGUNEKO GAI-ZERRENDAKO GAIAK:

1. 2017ko ekainaren 29an egindako ohiko osoko bilkurako akta onartzea.
2. Ekaineko Alkatetza Dekretuen berri ematea.
3. EH-BILDUren mozioa bidegorrien alde
4. EH-BILDUren mozioa Altsasuko gertaeren inguruan
5. ORDIZIA ORAINen mozioa, mozioen ondorio juridiko eta Osoko Bilkuran onartutako mozioen jarraipenaren inguruan.
6. ORDIZIA ORAINen mozioa, partaidetza teknikari postu bat sortzeko
7. IZENPE S.AK igorritako zerbitzu elektronikoen gainean Udalak eta IZENPEk sinatuko duten hitzarmena onartzea
8. Zerbitzu publikoak emateagatik ordaindu beharreko tasen Ordenantza Fiskala aldatzea
- 9.- Galderak eta eskaerak

GALDE-ERREGUETAN AZTERTUTAKO GAHIAK:

ORDUTEGIA:

HASIERA: 19:00 etan

AMAIERA: 20:35 etan



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren lehenengo puntuaren berri eman du:

1.- 2017ko ekainaren 29ako ohiko Osoko Batzarrako akta onartzea.

Proposamena

2017ko ekainaren 29ako ohiko Osoko Batzarrako akta onartzea

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

Eztabaida

Maiza andreak:

Adierazi du 10. puntuan "inbertsio proposamenak" bere interbentzioa ez dela guztiz jaso. Aktan jasotakoaz gain, ondorengoa esan zuela adierazi du:

"Plana udal arkitektoari ematea erabaki zela Donostiako Plan orokorrean berritze lanetan ibili zenez, han jasotako ezagutzak baloratuz.

Orduantxe, Donostiatik Ordiziara itzultzea eskatu zuen arkitektoak. Mahaikide batek galdetu zuen ea Udala behartuta ote zegoen tekniko hartzera.

Orduko Kontu-hartzaileak egindako txostenaren edukiaz ez naiz gogoratzen baina eztabaidan ibili beharrean txostena hartu eta zer dioen azaltzea besterik ez dago eta orain arte ez da egin.

Asko azpimarratzen da etxeko teknikoarekin ari garela lanean. Uste dut argitu beharra dagoela, udal arkitektoak, kanpoko beste diziplina batzuetako teknikoen aholkularitza derrigorrezkoa duela".

Eskatutako zuzenketa egin da.

Bozketa

- Aldeko botoak: 12 (EAJ/PNV 5, Ordiziako E.H. Bildu 4, Ordizia Orain 2, Socialistas Vasco-Euskal Sozialistak 1)

Alkate jaunak akta onartutzat eman du.



2.- Ekaineko Alkatetza Dekretuen berri ematea

Ekainean Alkatetzak onartu zituen dekretuen berri eman da osoko bilkuran.

Eztabaida

Sukia andreak:

B17/0518 Dekretuari buruz galdetu du, ostalaritza establezimenduen ordutegiari buruzkoa.

Bere ustez kaltetutako bizilagunei eman behar zaie ordutegiaren luzapenaren berri.

Osoko bilkura jakinaren gainean dago.

Alkate Jaunak:

Esan du presazko izaera duen puntu bat eguneko gai zerrendan sartzea proposatuko duela. Ordiziako gazte kooperante bati diru-laguntza ematea proposatzen da abuztuan Tanzaniara joateko, han bere lana egingo du. Abuztuan bidaiatuko duenez, Gizarte Zerbitzuek Alkatetza honi puntua gaurko gai-zerrendan sartzeko eskatu diote.

Puntua gai-zerrendan sartzea bozkatu da.

Bozketa

- Aldeko botoak: 12 (EAJ/PNV 5, Ordiziako E.H. Bildu 4, Ordizia Orain 2, Socialistas Vasco-Euskal Sozialistak 1)



3.- Ordiziako gazte kooperatzaileari diru-laguntza ematea.

Eztabaida

Alkate Jaunak:

Azaldu du Ordiziako Pablo Zabala Pelaez gazte kooperatzaileari 1.091,46 euroko diru-laguntza ematea proposatzen dela eta zenbateko hori Tanzaniara joateko bidaiaren gastuei aurre egiteko dela, han egingo baitu lan.

Bozketa

- Aldeko botoak: 12 (EAJ/PNV 5, Ordiziako E.H. Bildu 4, Ordizia Orain 2, Socialistas Vasco-Euskal Sozialistak 1)

Alkate jaunak proposamena onartutzat eman du.



4.- EH-BILDUren mozioa, bidegorrien aldekoa

Proposamena

Ordiziako EH Bildu Udal Taldeak Goierriko Foru Bidegorrien Eraikuntzaren aldeko mozioa aurkezten du, Ordiziako Udaieko Osoko bilkuran eztabaidatua izan dadin.

AURREKARIAK

Aurreko agintaldian, 2011/2015ekoan, hain zuzen, Bilduk kudeatzen zuen Gipuzkoako Foru Aldundiaren aldetik Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurraldearen Arloko Plana prestatu, onartu, eta Gipuzkoako Batzar Nagusietara eraman zen. Bertan, Batzar Nagusietan ordezkaturak zeuden alderdi politiko guzti-guztiek, Araiak, PP, PSE-EE, EAJ/PNV eta EH Bilduk aldeko botoa eman zioten, Plana Foru Arau bifakaturik, eta ondorioz, ordudunik berau betetzea loteslea izanik.

Foru Arauaren hitzetan, jendarte aurreratuetan joan-etorriak nabarmen hazi dira, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak, gainerako administrazio eta gizarte eragileekin batera, motorrik gabeko mugikortasunaren alde egiteko beharra ikusi du, oinezko eta bizikleta bidezko mugikortasuna bultzatuz. Horrela, beste garraiobideen aldean bizikletak garrantzi handiagoa eta protagonismo gehiago hartzea funtsezkoa da, izan ere, garraiobide biguna da, ingurumenaren ikuspegitik iraunkorra, energiaren aldetik eraginkorra, eta gizarte alorrean osasungarria eta bidezkoa.

Horregatik guztiagatik, ezinbestekotzat jo zen Gipuzkoako hirigune nagusiak lotzeko bizikletentzako eta oinezkoentzako herriarteko bide sare bat edukitzea, behar bezala planifikatua, eraikia, artatua eta zaindua.

Horrela, herrietako eta herriarteko bizikleta bideen azpiegitura multzo moduan ulertu zen, eta bederatzi ardatz nagusi edo ibilbidetan banatu zen Gipuzkoa osoa, 3. Ibilbidea, Donostia-Beasain, Goierri lotuko zuena izan zelarik.

Bidegorri hauen eraikuntza Foru Arauak jaso zuen, lau urteko bi etapatan programaturik. Horretarako, urtero, gutxi gora behera, 14 milioi euro inbertitzea aurreikusten zen. Agintaldi honetan ordea, inoizko inbertsiorik txikienak egiten ari da Gipuzkoako Foru Aldundia, 2016an inbertsioa 2.5 milioira ez zen iritsi, eta aurten ezta 2 milioira ere. Argi dago, beraz, oraingo Foru Aldundiarentzat, zoritxarrez, bidegorrien eraikuntza ez dela lehentasun bat.

Aurreko agintaldian, berriz, Foru Arauen jasotzen zen egutegiaren arabera, Itsasondo/Ordizia bidegorria burutu zen. Lehenengo lau urtekoa bukatuta egonik, azken bi urte hauetan Gipuzkoako Foru Aldundiak Goierri bidegorri metro bat bera ere ez duela eraiki salatu behar dugu. Eta hau, oso larria izanda ere, are larriagoa da Aldundiko Mugikortasun Saiak ez duela inongo asmorik Goierri bidegorririk egiteko.

Dagoeneko, Segura/Zegama, Ordizia/Zaldibia eta Beasain/Idiazabal bidegorri adarrak eraikita eta bukatuta egon behar ziren arren, eraikuntza ez da egin, eta aurten egitea ere ez da

aurreikusten. Antza, bakarrik Segura/Zegamako azken zatia 2018rako bukatuta egongo da, oinezko eta txirrinduentzako 3 metroko zabalarekin bakarrik, Gipuzkoako Foru Aldundiaren 4 metroetako zabalaren irizpideetatik oso urrun. Era berean, dagoeneko 2017-2021ko 2. lau urtekoan sartuta egonik ere, ez dago inongo proiekturik Segura/Mutiloa edo Ataun/tazkao bidegorriei inguruan.

Beraz, eta goian azaldutako arrazoi guztiak ontzat harturik, mozio hau aurkezten dugu Ordiziako Udalbatzan eztabaidatua eta onartua izan dadin.

ESKAERA

1. Ordiziako Udalbatzak bat egiten du 2013ko ekainaren 10an Gipuzkoako Batzar Nagusietan aho batez onartu zen Bizikleta Bideen Lurraldearen Arloko Plana (2013/2021) Foru Arauarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen dio berau betetzea.
2. Ordiziako Udalbatzak Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen dio Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurraldearen Arloko Planak Goierriko aurreikusten dituen foru bidegorrien eraikuntza ez baztertzea, eta beraien lanei ahalik eta azkarren ekitea, denbora gehiagorik gaidu gabe.
3. Ordiziako Udalbatzak Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen dio 2018ko aurrekontuetan partida bat sor dezala Goierri 2013/2017ko 1. lau urtekoan eraiki behar ziren bidegorri guztien finantzaketa berma dezan.
4. Ordiziako Udalbatzak Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen dio Bizikleta Bideen Lurraldearen Arloko Planak Goierriko aurreikusten dituen udal bidegorrien eraikuntza osatzeko 2018ko aurrekontuetan, helburu horri begira, eta udaik diruz laguntzeko, partida bat sor dezala.
5. Ordiziako Udaik mozio hau Gipuzkoako Batzar Nagusietara, Gipuzkoako Foru Aldundira eta Gipuzkoako Bizikleten Kontseilura bidaliko du.

Eztabaida

Eguren jaunak:

Mozioaren edukia azaldu du eta mozioak jasotzen dituen 5 puntuak irakurri ditu.

Alkate jaunak:

Erantzun dio esanez 2007-2011 legealdian EAJ-PNVrekin foru gobernua 2008an bidegorrien Lehen Plana onartu zuela eta udalerrien arteko sare bat eraikitzea jasotzen zuela, 400 km-tik gorakoa, eta horretarako 40.000.000 euroko aurreikuspena egin zela. 2010. urtean 100 km ziren operatibo.

2011-2015 legealdian, finantziario murrizketengatik seguruena, partida nahiz eraikitako bideen kilometroak drastikoki jaitsi ziren aurreko legealdiarekin alderatzen badugu.

2013. urtean, Foru Aldundira BILDU sartu eta bi urtera, aho batez onartu zen Batzar Nagusietan aurreko legealdian aurreikusten zena baino 8 km gutxiagoko bidegorrien sarearen aldaketa, eta burututako 102 km eraikitzea onartu zen, horien artean Ordizia-Itsasondo ardatza, ia aurreko legealdian burutu zirenak.

Plan horrek bidegorria eraikitzeko urteko 14 milioi euroko inbertsioak aurreikusi zituen, baina datuek erakusten dute Bilduk 2012 urtean 2,7 milioi eta 2014 eta 2015 urteetan 2,5 milioi xahutu zituela.

Hori dela eta, herriko /eskualdeko bidegorriei dagokienez, aurreko legealdia baliogabekoa izan da praktikan, Ordizia-Itsasondo lotura izan ezik, aurreko legealdian proiektatu zena eta Bilduk zabaldu zuena eta Lazkaoko herriko bidegorriari emandako laguntzak izan ezik.

Ez dakigu aurreko legealdian eskualdeko Bilduk eskaerarik edo errekerimendurik egin zion Foru Aldundiari edo Foru Aldundian bertan egin den bidegorriei buruzko Foru Arauak betetzeko baina ez du uste eta BILDUK ez du inoiz erakutsi "zementoa", azpiegiturak, nolanhikoak direla ere gustukoak izan dituela.

Orain gaur egungo foru gobernuari dagokio hori burutzea, hori hala da. Bidegorri sare errealista bat behar dela eta, horrekin bat egiten du, mugikortasun beharretara egokitua, motorizatu gabekoa; horrek mugikortasun jasangarriaren abangoardiara eramango gintuzke. Baina era berean gaur egungo baliabideak kontuan izan behar ditugu; izan ere, oztopo dira zenbait proiektu burutu ahal izateko Foru Aldundiaren jardunetan dauden lehentasunak eta beste arlo batzuetako beharrak aintzat hartuta.

Foru Aldundiari aurrekontu partidak eta konpromisoak eskatu aurretik aurrekontu baliabideen zenbatekoa ezagutzea eta bertan parte hartzea beharrezkoa iruditzen zait eta bidegorrien foru sarearen garapenean jardura kronograma zein den ezagutzea ere bai. Eta eskualde mailako jardueren artean, industriaguneetara motorrik gabeko sarbideei lehentasuna emateko proposamena egingo lukete edo bestela gaur egun erabiltzen diren bide-zatiak osatzea edo lotzea.

Eguren jaunak:

Argitu du mozioaren helburua ez zela inori kargu hartzea, hori ez zen behintzat bere asmoa. Aldundiko gobernuan nor ala nor egon, Foru Aldundia da foru bideetan bidegorriak eraikitzeko eskumena duena; hori dela eta, herritarren mesedetan Aldundiak bide horiek sustatzea nahi dute aurkezten duten mozioarekin.

Dubreuil jaunak:

Adierazi du mozioaren aurka bozkatuko duela guztiz alderdikoia iruditzen zaiolako, eta gainera ez delako egia esaten duena.

Mozioaren lehenengo zatiko esaldien irakurketatik ondorioztatzen da beraiek bakarrik landu dutela gaia. Eta hori, ez da horrela; hori adierazi du.

Aurrekontu murrizketekin Plana moteltzen joan da.

Ez da bidezkoa egiten den kritika politiko hori.

Egiazki 2016 eta 2017an ez da aurreikusitakoa gastatu inondik inora ere, baina ezta aurreko legealdian ere. Sail bakoitzak ekintza zehatzetara bideratzen duen aurrekontuen portzentaia gaiari

ematen zaion garrantziaren eta lehentasunaren adierazle da. 2016an ehineko 24a bideratu da eta 2017an ehuneko 23 eta piko.

Bere ustez esanguratsua da bideratutako zenbatekoa.

Beste alde batetik, Alkateak burutu diren bide-zatien eta inbertsioen datuak eman ditu.

Aurreko legealdian soilik Ordizia-Itsasondo bide-zatia egin zen.

Jakin nahi du ea Ordiziako EH-BILDUK Foru Aldundiari mozioak aurkeztu zizkion eta plana betetzeko eskaera egin zion. Berak ez du gogoan horrelakorik.

Sukia andreak:

Esan du herritarrek bidegorriak eskatzen dituela.

Bozketa

- Aldeko botoak: 6 (EH-BILDU 4, O.ORAIN 2)
- Kontrako botoak: 6 (PNV 5, PSE-PSOE 1)
-

Berriro egin da bozketa:

- Aldeko botoak: 6 (EH-BILDU 4, O.ORAIN 2)
- Kontrako botoak: 6 (PNV 5, PSE-PSOE 1)
-

Beraz, alkatearen kalitatezko botoarekin proposamena ez da onartu.



5.- EH BILDUren mozioa Altsasuko gertaerei buruz

Proposamena

Joan zen urriaren 15ean Altsasuko taberna batean gertatutako egitateen aurrean, non bi guardia zibil eta haien bikoteak zauritu ziren, zein gertaera hauetatik eratorri diren ondorioak ikusirik, Ordiziako Udalak bakearekiko eta elkarbizitzarekiko bere konpromezua berresten du eta erabateko desadostasuna agertzen du aztertutako egitateak terrorismotzat kalifikatzearekin, gazte auzipetuei neurrigabeko zigorrak ekarri baidiezaizkieke.

Hilabete hauetan zehar, makina bat izan dira Euskal Herrian osoan izan diren elkarretaratze, manifestazio eta mota guztietako ekitaldiak zeinetan pertsona, eragile zein instituzioek auzi honen baitan ematen ari den izugarritzko proportzionaltasun eza salatu dute.

Epealdi honetan, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako instituzio nagusiek, tartean Nafarroako Parlamentuak zein Eusko Legebiltzarrak argi esan dute gertatuak ezin direla terrorismo ekintzat kalifikatu, kode penalaren 573. artikulua onartuz, eta ondorioz Nafarroan instruitu eta epaitu beharko litzatekela.

Orain gutxi ere, Madrileko Gorte Orokorretako 74 diputatu zein senatarik, Europako Parlamentuko 52 diputatuk eta Hego Euskal Herriko 83 alkatek auziarengatik euren kezka agertu dute.

2017ko uztailaren 4ean jakin da zein eskaera egin duen Estatuko Fiskaltzak auzipetutako gazteentzako, 62 urte eta 6 hilabeteko eskaera gazteentzako batentzat, 50 urte sei gazteentzat eta 12 urte eta 6 hilabete zortzigarrenentzat. Zuzenbidezko Estatu batean onartezina litzatekeen neurrigabekeria.

Guzti honengatik ORDIZIAko Udaleko Osoko Bilkurak honakoa onartzen du:

ERAKUNDE-ADIERAZPENA

1. ORDIZIAko Udalak erabateko desadostasuna adierazten du Fiskalaren zigor eskaeren aurrean, eta kezka handia adierazten du gertaeren bilakaerarengatik, kasua neurrigabekeria eta bidegabekeria onartezin batera heldu dela ikusita.
2. ORDIZIAko Udalak konpromiso irmoa adierazten dute elkarbizitzarekiko, justiziarekiko eta pertsona guztien giza eskubideen errespetuarekiko, zuzenbidezko estatu demokratiko baten berezko printzipioak direlako, eta adierazten dute kasu hau inguratzen duen neurrigabekeria normaltasun eta elkarbizitza demokratikoen aurkakoa dela.
3. ORDIZIAko Udalak Nafarroako Probintzia Auzitegiaren motibazioa babesten dute egitateak terrorismotzat kalifikatzeko zantzuak ez daudela dioenean, eta, beraz, berresten duenean Altsasun joan zen urriaren 15ean gertatutako egitateen izapideak egiteko eta epaitzeko eskumenak Iruñeko epaitegiarena izan behar lukeela.

Eztabaida

Eguren jaunak:

Moziorearen edukia azaldu du, eta adierazpen instituzionalaren hiru puntuak irakurri ditu.

Sukia andreak:

Esan du bere taldea guztiz ados dagoela moziorekin, eta moziorearen alde bozkatuko duela.

Dubreuil jauna:

Ordea, moziorearen aurka agertu da.

Haren iritziz, hizkera guztiz desitxuratu da, eta gertatu diren gauzak, salatu diren kontuak... aipatzen dira. Haren iritziz, gauzei beren izena eman behar zaie. Lesioak jasan zituzten lau pertsonen aurkako indarkeriazko ekintzak izan ziren. Biktimek beren eskubide zibilen aurkako atentatua jasan zuten, beharbada guardia zibilak zirelako, nahiz eta azken hori ziurtatzerik ez duen.

Ez dituzte babestuko eskubide horiek ahanzturara eramango dituzten ekintzak. Sozialistek bizikidetzarekin hartua dute konpromisoa, eta ezin dute ahaztu pertsona haiek beren eskubide zibiletan jasandako erasoak.

Bakean izango den bizikidetzaren aldeko apustua egiten dute, Euskal Herriko zein Espainiako herritarrengan horrenbesteko kalte eragin duen terrorismoa desagertzearen aldekoa.

Ados dago Altsasun gertatutakoa jurisdikzio arruntak epaitzearekin, baina mozioak alde batera utzi ditu gertatutako indarkeriazko ekintzak. Hori dela-eta, ez diote babes emango.

Berrito dio sozialistak beti egongo direla indarkeriazko ekintzen eta intolerantziaren aurka.

Soto andrearen esanetan, mozioak dio egitate haiek jurisdikzio arruntak epaitu behar dituela, ez beste batek.

Dubreuil jaunak:

Azpimarratu du mozioak ez dituela gertatutakoak gaitzesten, eta ez duela gertakari haien testuingurua aipatzen.

Eguren jaunak:

Dubreuil jaunari erantzun dio ez dakiela Dubreuil jauna egun hartan gertakarien lekuan ote zegoen, edo fiskalak besteok ezagutzen ez dugun informazioen bat eman ote dion. Esan du bera ere bizikidetzaren aldekoa dela, baina ez duela ulertzen nola gaitzets daitezkeen guardia zibilen aurkako egitateak eta ez gaitzestea hamarkadatan Euskal Herriko gazteek jasan duten tortura. Esan du Ordizian pintadak agertzen direnean, hurrengo egunean alderdi politikoei deia egiten zaiela batzartzeko, gaitzespena adoste aldera. Bere iritziz, lehenik eta behin Dubreuil jaunak defendatzen duen konstituzioa bete beharra dago. Altsasuko egitateak Iruñean epaitu behar dira, ez Madrilan.

Azkenik, esan du beraiek prest daudela, noiznahi, bizikidetzaz hitz egiteko, baina izugarria iruditzen zaiola Dubreuil jaunak aurrez epaitzea egun hartan gertatutakoa oraindik ere frogatu ez bada, eta ezer ondorioztatu ez bada.

Dubreuil jaunak:

Esan du berak guardia zibilak, ertzainak eta, oro har, herritarrak defendatzen dituela haien oinarriko eskubideak urratzen badira.

Egitateak argi daudela esan du. Indarkeriazko ekintza bat izan da, eta mozioak ez ditu aipagai inon biktimak eta intolerantzia. Bere iritziz, beharrezkoa dugun bizikidetasun horretako, aitortu behar dugu zerbait gaizki egin dugula, eta ezinbestekoa da bizi izan dugunaren errealitatea ezagutu.

Bere esanetan, Altsasuko gertakariak indarkeriazko ekintzak dira, guardia zibilak ziren pertsonen aurkako ekintzak, guardia zibilak izateagatik, ia-ia ziur. Egitateak ezin dira testuingurutik atera. Ez du iritzirik emango nork epaitu behar dituen egitate haiek.

Sukia andreak:

Esan du egitateak epaian finkatuko direla. Aitortzen du indarkeria egon zela, baina esan du gertakari haiek jazo zirenean, egitateen eta ondorioen berariazko gaitzespena egin zutela alderdi politiko guztiek.

Dubreuil jaunak:

Berrito dio beharbada hedabideetan argi geratu zela gaitzespena, baina mozioetan ezetz.

Alkate jaunak:

Esan du mozioaren alde bozkatuko dutela; izan ere, nahiz eta neurri handi batean Dubreuil jaunak dioenaren alde egon, neurriak gehiegizkoak iruditzen zaizkio.

Bozketa

- Aldeko botoak: 11 (PNV 5, EH-BILDU 4 eta O. ORAIN 2)
- Aurkako botoak: 1 (PSEE-PSOE)

Alkate jaunak proposamena onartutzat eman du.



6.- O. ORAIN taldearen mozioa ondorio juridikoei eta mozioen jarraipenari buruz.

Proposamena

Maria Jesus Soto andreak eta M. Alazne Sukia andreak, Ordiziako Udaletxe honetako Ordizia Orain taldeko zinegotziek, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean xedatutakoaren babesean. Honako artikuluan:

46. artikulua.

1. Toki-erakundeetako kide anitzeko organoak ohiko bilkurak egingo ditu, aurrez ezarritako aldizkakotasunez, eta bilkura bereziak ere bai; azken horiek presakoak izan daitezke.

2. Nolanahi ere, toki-korporazioko osoko bilkuren jarduna arau hauetara egokitzen da:

e) Osoko bilkura arruntetan, korporazioko gainerako organoak kontrolatzera bideratutako parteak banakotasun propioa eta bereizlea eduki behar ditu alderdi erabakitzailerekiko. Funtzionamenduan eta, hala badagokio, erregulazioan modu eraginkorrean bermatu beharko du udal-talde guztien parte-hartzea eske, galdera eta mozioetan.


Honako MOZIOA aurkeztu dute osoko bilkuran onartutako mozioen jarraipena egiteko.

Arrazoen azalpena:

Toki-erakundeen jarduna arautzen duen legeriak esaten digu alkatearen zeregina dela ordenantzak eta udal-araudiak betearaztea, eta udalaren akordioak argitara ematea, gauzatzea eta betearaztea.

Mozioek berebiziko garrantzia dute udalen jarduera demokratikoan. Proposamen gehienek asmoa herrian zuzeneko eragina lortzea da; hortaz, arazo erreal eta zehatzak hobetzen edo konpontzen dituzte. Horrenbestez, mozio bat onartzeak esan nahi du adostutakoa betetzeko konpromiso argia hartzen dela. Alabaina, eta tamalez, udal honetan osoko bilkurak hartutako hainbat akordio ez dira bete, besteak beste:

- Gardentasunari eta kontu irekiei buruzko ordenantza
- Enirio-Aralar
- 2016ko aurrekontuetako inbertsioak, aho batez onartuak



Ordiziako Udala

2017IOSB0006

ORDIZIA ORAIN udal-taldea orain arte ohitura inposatu gisa burutu diren hainbat gauza aldatzeko asmoarekin iritsi da udal honetara; izan ere, horiek ez baitiete herritarren premiei erantzun. Hortaz, ez gara osoko bilkurek suposatzen duten antzerkian partaide izango. Erantzunak, jarraipenak, iraunkortasuna nahi ditugu, osoko bilkuretan onartutako guztia bete dadin. Ezin dugu onartu osoko bilkurak adostutako mozioak udalaren burokrazian galtzea.

Horregatik guztiarengatik, Ordizia Orain udal-taldeak honako horiek eskatzen dizkio udal honi:

1- Onartutako mozio bakoitzean (protokolozkoak eta politikoak -adierazpen instituzionalak, kasurako- izan ezik), mozio horietan jasotako proposamenen bideragarritasun ekonomikoa, eskumenei dagokiena eta bideragarritasun juridikoa bermatuko dituen tramitazio administratiboko espediente bat jarriko da abian; bideragarria ez bada, bideragarria zergatik ez den argudiatuko duen txosten tekniko bat landuko da, eta hurrengo osoko bilkuran azalduko da.

2- Mozioen jarraipena egingo duen mahai bat sortzea, mozioak betetzen direla bermatze aldera. Mahaiak mozioak betetzeko kronograma definitu eta onartuko du, eta udal-talde bakoitzeko kide batek osatuko dute. Halaber, herritarrek parte hartzeko eskubidea izango dute, eta gutxienez hiru hilean behin elkartu beharko da.

3- Udal-gobernuak osoko bilkuretan onartutako akordioen betetze-mailari buruzko txostena landuko du sei hilean behin, eta dagokion osoko bilkuran alkatetzaren txostenean jasoko da.

4- Osoko bilkuran onartutako mozioak udal honen web-atarian jasotzea, beteko direla bermatze aldera, eta, era berean, herritarrek mozioen betetze-mailari buruzko informazio eguneratua izan dezaten. **GAUR EGUN, UDALAREN WEB ORRIALDEAN 2016ko ABENDURA ARTEKO OSOKO BILKUREN AKTAK DAUDE.**


ONDORIOAK.

Akordio honen xedea da udal-politikaren funtzionamendua hobetzea, adostuagoa, eraginkorragoa, gardenagoa eta formalagoa izan dadin, eta kontraesan gutxiago izan ditzan; horrela, sare sozialetan eta bestelako argitalpenetan (aldizkarietan, tokiko hedabideetan eta osoko bilkuretan) biktimismoa saihestuz. Halaber, xedea da ahal denik eta azkarren iristea akordiorik onenera, tentsio gutxiagorekin eta argiago, eta osoko bilkuran asmo hutsak ez jasotzea, erabakiak gauzatuko direla kontrolatzeko, eta horrela, akordioak bete ezean azalpenak eman behar izateko.

Eztabaida

Soto jaunak:

Mozioa irakurri du.



Ordiziako Udala

2017IOSB0006

Azaldu duenaren arabera, mozioa aurkeztu dute ikusirik udalean azkenaldi honetan arlo politikoan gertatzen ari dena. Bere iritziz tentsio handiegia dago, eta argitalpenek ez dute, beti, egia erakusten.

Idazkariak ikuspuntu tekniko/juridiko batetik azaldu du zein den eduki politikoa edota instituzionala duten mozioen tratamendu eta eraginkortasun juridikoa.

Dubreuil jaunaren iritziz osoko bilkurarako gaiak aztertzen dituen batzordea da organo eskuduna halako mozioak onartzeko. Bere iritziz, ez zaio udalari lan gehiago eman behar. Ez zaio egoki iruditzen proposatzen den jarraipen-mahai osatzea.

Eguren jaunak:

Esan du mozioaren alde bozkatuko duela; izan ere, halako mozioek ibiltarte juridikorik ez badute ere, mozioak osoko bilkuran eztabaidatu behar direla, eta udaleko organo gorenak onartzen dituen mozioen jarraipena egin beharra dagoela iritzi dio.

Bozketa

-Aldeko botoak: 6 (EH -BILDU 4, O.ORAIN 2)

- Abstentzioak: 6 (EAJ 5, PSEE-PSOE 1)

Alkate jaunak proposamena onartutzat eman du.



7.- O. ORAIN taldearen mozioa partaidetzako teknikari-lanpostu bat sortzeari buruz.

Proposamena

Udal honek, herritarrek parte hartzeko printzipioa dela-eta, hainbat prozesu parte-hartzaile jartzen ari da martxan. Gure talde politikoarentzat, Ordizia Oraintzat, prozesu parte-hartzaileek politika egiteko modu bat izan behar dute, modu naturala eta ohikoa.

Oraingoz hiru prozesu dauden martxan, eta laugarrena bidean. Prozesu parte-hartzaileak dinamizatzeko, kanpoko enpresak kontratatzen ari gara, eta horietako bakoitzaren kostua 12.000 € ingurukoa da.



Eskaera:

Udal honek onar dezala, bere plantilla organikoaren barruan, prozesu parte-hartzailetan aditua izanen den teknikari bat, eta postu hori udalak gaur egun bere plantillan duen langile batek betetzea barruko promozioen bitartez, eta beharrezkoa duen prestakuntza emanda.

Eztabaida

Sukia andreak:

Mozioaren edukia eta mozioak berarekin dakarren eskaera azaldu ditu.

Esan du gero eta ohikoagoak direla prozesu parte-hartzaileak, eta prozesu horiek kanpo enpresei esleitu behar izaten dizkiegula.

Bere iritziz, garrantzitsua da pertsona bat prestatzea prozesu parte-hartzaileen arloan teknikari batek betetzen dituen eginkizunak burutu ahal izateko, prozesu horiek premiak zehaztu ditzan. Halaber, lanpostu hori betetzeko prozesuak barne-prozesua izan beharko luke.

Alkate jaunaren iritziz:

Zuhurtziaz eta nolabaiteko logikaz jokatu behar dugu, eta lanpostu hori Lanpostuen Zerrendan sortu aurretik, hau da, egituraren barruan txertatu aurretik, komenigarria litzateke eginkizun horiek aldi baterakotasunez betetzea udalean, eta ikustea lanpostu horren funtzioen edukia denboran.


Bere iritziz, gardentasunari, administrazio elektronikoari, kontratuen erregulazioari eta bestelakoei buruzko arau berriekin sortzen ari diren premia teknikoaren analisia egin behar dugu. Horrek orokortasunaren hausnarketa eskatzen du.

Maiza andrearen iritziz:

Administrazioan ematen ari den iraultetak berarekin dakartza premia berriak eta lanpostu berrietako eskakizun berriak.

Mozioaren bozketan abstenitu egingo dira, baina bere iritziz, beharrezkoa da irailetik aurrera antolaketa-ereduari buruzko hausnarketa egitea, eta antolaketa hori bideratzeko eta hobetzeko hartu beharreko neurriak hartzea.

Dubreuil jaunaren iritziz:



Ordiziako Udala

2017IOSB0006

Aukeraketa-prozesu horren ondoriozko funtzionarioa egonkortu eta edukia eta eginkizunak eman behar zaizkio. Bere iritziz, partaidetzan lan egiten ari gara, baina prozesu parte-hartzaileak egonkortu egin behar dira.

Garrantzitsua da, bere esanetan, eginkizun horiek garatuko dituen pertsonaren profil egokia definitzea, eta galdetu du ea funtzionario zehatzen batengan pentsatzen ari ote den, edo ba ote dagoen norbait interesaturik lanpostu horretan.

Bere iritziz, mozioa bertan behera utzi beharko litzateke gaia sakon aztertzeko.

Sukia andreak:

Esan du urte luzez ari garela partaidetza lantzen, baina gaur gaurkoz ez dagoela inor prozesu horiek zuzentzeko eta dinamizatzeko.

Ez du mozioa bertan behera uzteko arazorik, baina oporretatik bueltan gaiari heltzeko konpromiso irmoa eskatu du.

Dubreuil jaunaren iritziz:

Komenigarria da gaia aztertzea, baina bere iritziz partaidetzako teknikari batek ez dio dagoeneko gardena den udalari gardentasunik emango.

Sukia andreak:

Esan du bertan behera uzten duela mozioa.


Hortaz, mozioa bertan behera geratu da.



8.- IZENPEk ematen dituen zerbitzu elektronikoetarako hitzarmena onartzea.

IZENPE, S.A.-ren zerbitzu elektronikoak arautzen dituen akordioaren berri ematen da. Akordioa Udala eta IZENPEren artean sinatuko da udalek identifikazio elektronikoaren sistemaren emisioan erregistro-entitate moduan funtziona dezaten.

Erregistro-entitate bezala funtzionatzeak ondoko zereginetan aritzea suposatuko du: erabiltzaileen nortasuna egiaztatzea, egiaztatu beharreko dokumentazioa begiratzea eta igorritako, indargabetutako eta berritutako eskaerak balidatzea eta onartzea.



Ordiziako Udala

2017IOSB0006

Udalak B@kQ-ren emisioa interesgarritzat jo duenez, 2017ko uztailaren 12ko Osoko Bilkurarako gaiak aztertzen dituen Batzordearen aldeko irizpenarekin, honako hau proposatu da:

AKORDIO PROPOSAMENA

Lehenengoa.- ZIURAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS, IZENPE, S.A.-ren zerbitzu elektronikoak arautzen dituen akordioa izenpetzea.

Bigarrena.-Alkatea Udalaren izenean eta bere ordekaritzan Akordioa izenpetzeko ahalduntzea.

Hirugarrena.- IZENPE, S.A.-ri akordioaren berri ematea, berauri buruz luzatutako ziurtagiri bidez.

Eztabaida

Azaldutakoaren arabera, hitzarmenaren helburua da administrazio elektronikoan beste urrats bat ematea.

Bozketa

- Aldeko botoak: 12 (EAJ/PNV 5, Ordiziako E.H. Bildu 4, Ordizia Orain 2, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1)

Alkate jaunak proposamena onartutzat eman du.




9.- Herri Antzokiko zerbitzuak arautzen dituen ordenantza fiskala aldatzea.

Proposamena

Herri Antzokiko gobernu-batzordeak 2017ko uztailaren 6an egin zuen bileraren berri eman da. Bilera horretan, Herri Antzokiak ematen dituen zerbitzu publikoengatikoko tasak igotzea proposatu zen.

Proposatutako igoera onartzeko prozedura osoko bilkurak hasiera batean onartzea da; horren ondoren, 30 egunez egongo da jendaurrean GAOn, egin dakizkiokeen oharrek, iradokizunak eta alegazioak egiteko.



Ordiziako Udala

2017IOSB0006

Jendaurreko epearen ondotik, egin zaizkion (egin bazaizkio) alegazioak ebatziko dira, eta akordioa behin betikoz onartuko da.

2017ko uztailaren 12ko osoko bilkurarako gaiak aztertzen dituen batzordearen aldeko irizpenarekin, proposatu da onartzea honako

AKORDIORAKO PROIEKTUA

LEHENA.- Zerbitzu publikoak emategatiko tasak arautzen dituen ordenantza fiskalaren aldaketa hasiera batean onartzea honako zenbatekoetan:

LAU HILEKO ABONUAK	25 euro
SARRERA OROKORRAK	5 euro
HAURRENTZAKO SARRERAK	3,50 euro

film-emanaldia 3D-n baldin bada, sarrerak euro bat igoko dira.


BIGARRENA.- Akordio honi alegaziorik aurkezten ez bazaio, hasiera batean onartzetik behin betiko izatera pasako da.

Bozketa

- Aldeko botoak: 12 (EAJ/PNV 5, Ordiziako E.H. Bildu 4, Ordizia Orain 2, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1)

Alkate jaunak proposamena onartutzat eman du.





Ordiziako Udala

2017IOSB0006

10.- Galde-eskeak.

Eztabaida

Sukia andreak:

Esan du berriro ere kalean jakin dutela jarrera sexistei eta sexu-erasoei buruzko bideoa grabatu dutela.

Idazki bat irakurri du, euskaraz eta gaztelaniaz.

Bideo horretan kultura-taldek duten presentzia urria kritikatu du. Hainbat kultura-taldek (KIMETZ, kasurako) idatzitako testu bat aipatu du.

Eskatu du, orobat, halako ekimenak gauzatu behar badira, talde politikoak ere aintzat hartzea.

Alkate jaunak erantzun dio:

Bideoa grabatzeko ideia berdintasunerako batzordearen bilera batean onartu zela, eta horretan KIMETZ emakumeen taldeak esku hartzen duela.



Aztergai gehiago ez dagoenez, Lehendakariak bilera amaitutzat eman du, eta honako akta jaso da; hori, nik, idazkariak egiaztatzen dut.